

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Hutsak zuzentzea 2022ko azaroaren 21ean ALHOn 133 zenbakia duen argitaratutako 2022/3151 iragarkian desgaitasun-egoera aitortua duten pertsoneri eta garapen-nahasmenduak dituzten 0 eta 6 urte bitarteko adingabeei zuzendutako banakako laguntza ekonomikoen deialdi publikoarena

133. zenbakiko ALHOn argitaratu zen, 2022ko azaroaren 21ean, astelehenean, desgaitasun-egoera aitortua duten pertsoneri eta garapen-nahasmenduak dituzten 0 eta 6 urte bitarteko adingabeei zuzendutako banakako laguntza ekonomikoen deialdi publikoaren iragarkia.

Erabaki horretan akats material bat egin zen, eta deialdian eranskin gisa agertzen den 029 eska-bide-ereduan ez zen sartu "Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa" atala.

Iragarki honen bidez zuzendu egiten da akats hori, deialdian eranskin gisa agertzen den 029 eska-bide-ereduari testu hau eransten zaiolarik:

Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa:

Arduraduna	GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA San Prudentzio Kalea 30, 01005 Vitoria-Gasteiz, Araba. Tel: 945 15 10 15 Email DPD: dpd_ifbs@araba.eus
Xedea	Zuk emandako datu pertsonalak (norberarenek edo 14 urtetik beherakoek, baldin eta haien tratamendua berariaz baimentzen baduzu zure legezko ordezkariarekin), hirugarrenen bidez lortutakoak (beste pertsona/ erakunde publiko edo pribatu batzuk) eta zurekin lotzen gaituen harremanean sortutako beste edozein, GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEAK tratatuko ditu, Arabako Lurralde Historikoko herritarren gizarte-ongizatea eragin, sustatu eta hobetzeko (GOFE eskuduna den eremuan) Pertsona eta kolektibo kalteberei informazioa, arreta eta laguntza emanez, laguntza behar duten egoera pertsonal, familiar edo sozialetara lagunduz, egoera baloratuz eta premia zehatzetarako baliabide, prestazio eta zerbitzu egokieneri buruzko orientazioa emanez. Zure datuak ere tratatuko dira zurekin harremana eta komunikazioa mantentzeko. Era berean, jakinarazten dizugu lortutako datuak eskatutako zerbitzu edo baliabidearekin lotutako profilak egiteko erabil daitezkeela. Tratatu beharreko datuen kategorია honako hau da: identifikazio-datuak, gizarte-inguruabarrei buruzkoak, enpleguari buruzkoak, ezaugarri pertsonalei buruzkoak, ezaugarri ekonomiko eta finantzarioei buruzkoak, kategoría bereziko datuak eta jasotako/emandako zerbitzuei buruzkoak.
Eskubideak	Bidezkoa denean, zure datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu edo tratatzearen aurka egin dezakezu, eta ez duzu erabaki automatizatu bakar baten xede izan behar. Horrez gain, zure gainerako eskubideak erabil ditzakezu, GOFeren webgunean, hain zuzen ere, Datu pertsonalak babesteko atalean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 22a

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko zuzendari kudeatzailea
JOSÉ FRANCISCO ANTÓN IDRÓQUILIS